

ETXEKIDE PRENTSAURREKOA IRUÑEA, 2026/05/13

Harremanetarako: info@etxekide.org

SARRERA

2026ko apirilaren 15ean, Nafarroako Administrazio Auzitegiko Hirugarren Atalak, NAAk, 658 ebazpenaren bidez, atzera bota zituen Iruñeko Udaleko Gobernu Estrategiko, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agendaren Zinegotzi Delegatuaren 2025eko maiatzaren 12an emandako ebazpenaren kontra gora jotzeko helegiteak. Emandako ebazpena jarduera sailkatuaren lizentzia eta adinekoen elkarlaneko bizitokiaren eraikina egiteko obrak emateari buruzkoa zen, eta, horrenbestez, aurkeztutako zalantzak atzera bota zituen.

Gizarte-ekimeneko kooperatibak eskatu zuen aipatutako jarduera sailkatuaren eta obren lizentzia, Iruñean kokatzen den Alemaneko 6. Poligonoko 2101 zenbakiko katastro-partzelan elkarlaneko bizitokiak eraikitzeko.

Auzokideek Koliving kanpora auzo-plataforma sortu eta gora jotzeko helegitea aurkeztu zuten. Helegite horrek emandako obra lizentziaren legalitatea zalantzan jartzen zuen. Auzokideen plataformak, helegitean azaltzen zituen argudioez gain, duela hilabete batzuk, sare sozialetan baita komunikabideetan ere, Etxekide proiektuaren inguruan beste argudio eta zalantza batzuk zabaldu ditu: zuhaitzak "legez kanpo" moztea, "kortijo" a izatea, kooperatibako hainbat pertsonari buruzko informazioa haien beharrei eta aukera pertsonalei buruzko balio-judizioak ere egin ditu, eta abar.

Etxekidek ez die erantzun nahi izan argudio horiei NAAk ebazpena eman arte, batetik, instituzioak berak eta, bestetik, auzokideek aurkeztutako helegitearen balorazioaren prozesuak merezi duten errespetuagatik. Udalak gure kooperatibari emandako kontzesioaren legalitateaz inoiz ez dugu zalantzarik izan eta NAAren ebazpenak horrela berretsi du.

Arestian aipatutako zalantzei, legalei eta beste motatakoiei, erantzun geniezaieke, hala ere, gure ustez, garrantzitsuena da NAAk emandako ebazpena, hala nola, beste erakunde batzuek eman ditzaketanak, Etxekide kooperatibaren proiektua legezkoa dela berretsi besterik ez baitute eginen; Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruz indarrean dagoen legediak elkarlaneko bizitokiaren proiektua, egoitza zerbitzuen modalitate gisa, onartzen baitu.

Bestalde, egokia iruditzen zaigu azaltzea adinekoentzako gure elkarlaneko bizitokiaren proiektua botere publikoek gizarte zibilarekin duten konpromisoan kokatu eta gauzatzen dela.

ELKARLANEKO BIZITOKIAK: ELKARBIZITZA ETA ZAINZARAKO EREDUA

Ingelesezko “cohousing” hitzak elkarlaneko bizitokiaren esanahia du, eta datozen ezaugarriak ditu:

- Definizioa. Bizitza komunitariorako eredu honek espazioak partekatzetik haratago doa, eta elkarlana, elkarrekiko babesa eta erresilentzia soziala sustatzen dituen nahitako komunitate bat sortzea du oinarri.
- Jatorria eta helburua. Kasu gehienetan kooperatiban antolatutako etorkizuneko egoiliarren auto-antolakuntzari esker sortutakoa da. Irabazi-asmorik gabekoa izatea eta lankidetzan, parte-hartzean eta bizimodu kontzienteago eta partekatuago batean oinarritutako komunitate bat sortzea dira haren printzipio nagusiak.
- Egonaldia eta konpromisoa. Epe luzerako eta egonkortasunerako pentsatua da, lurraldean errotzea eta komunitate iraunkorra eta askotarikoa garatzea helburu dituelarik.
- Azpiegitura. Diseinua parte-hartzailea da. Egoiliarrek hitza dute plangintzan, eta horrek, askotan, jasangarritasunean, ekologian eta ongizatean ikuspegi sendoa ekartzen du. Kokapen malgua (hirikoa edo landakoa).
- Balio-eskaintza. Gobernantza kolaboratiboan, elkarrekiko laguntzan (zaintza) eta kideen osasuna eta gizarte ongizatea hobetuko dituen bizi sistema baten sorreran oinarritzen da.

Adinekoentzako “cohousing” esperientzien kasuan, Etxekide kasu, hainbat berariazko ezaugarri ematen dira. Horietako bat zaintza komunitarioen proiektu bat garatzen den lekua izatea da, bizitzaren amaierako etapa modu autogestionatuan partekatzea erabakitzen duten pertsonen zahartze-prozesua ahalik eta bizi-kalitate handienarekin mantendu eta lagunduko duena.

ELKARLANEKO BIZITOKIAK ETA ONGIZATE-ESTATUA.

Duela urte batzuetatik hona, foru eta udal administrazioek, elkarlaneko bizitokiaren eredu berriak edo ‘cohousing’ deritzenak martxan jartzea errazteko beharraz jabetuta, adinekoen elkarlaneko bizitokiak babesteari ekin diote.

Horrela erakusten dute aipatu administrazioek osasuna, hezkuntza, pentsioak eta gizarte-zerbitzuak zutabe dituen ongizate-estatuari eusteko konpromisoa. Sostengu hori, funtsean, administrazioen aurrekontu publikoek bideratzen dute. Aurrekontu horiek aukera ematen dute prestazio ekonomiko eta teknikoak edo zerbitzu-prestazioak ezartzeko, eremu horiei eta, gure kasuan, gizarte-zerbitzuei lotutako beharrak asetzeko.

Baina ongizate-estatua sustatzeko aurrekontuen tresna baliatzeaz gain, horrekin erantzunkide diren administrazio publikoek beste bide batzuk dituzte lagundu ahal izateko hala nola ondare publikoaren lagapenaren bidez, izan higigarriak izan higiezinak, eta baita lur publikoekin ere. Lagapen mota honek ondarearen erabilerari eragiten dio, ez bere jabetzari; ondarearen jabetza titularra den administrazio publikoarena izaten jarraitzen baitu. Arau honek Foru Komunitateko ondasunak beste administrazio publiko batzuei edo irabazi asmorik gabeko erakundeei lagatzea ahalbidetzen du, onura publikorako edo gizarte intereserako. Lagapena doakoa da, eta zenbait baldintza har ditzake

barnean, hala nola erabiltzeko epea, helburu soziala mantentzeko betebeharra edota besterentzeko debekua.

Lurren eta higiezinaren lagapen administratibo horrekin Nafarroako administrazio publikoek cohousing proiektuak bezalako ekimenei lagun diezaiekete, ondare publikoaren balioa handituz eta aurrekontu bidezko finantzaketa publikorik gabe. Etxekideri 75 urterako eman digute lagapen administratibo hori, eta epe hori igarota, orubea eta eraikina Nafarroako Gobernuaren esku geratuko dira.

ETXEKIDE KOOPERATIBA ELKARTEAREN PROIEKTUA.

Gaur egun, hogeita hamalau lagunek dugu bizitoki bat izateko aukera. Kooperatibista izateko prozesuak proiektuarekiko konpromiso aldi bat suposatu digu. Proiektuaren gakoa elkarbizitza da, elkar zaintzeko konpromisoa barne, baina bizikidetzari ekin aurretik ere, badago elkarrekiko konpromisorako tartea. Proiektua soziokrazian oinarritutako ereduari jarraiki bultzatu dugu; bost zirkuluk osatutako gobernantza-sistema dugu, Arkitektura, Komunikazioa, Komunitatea, Zainketak eta Ekonomia zirkuluak, hain zuzen ere. Kooperatiben araudiaren arabera, Etxekidek barne lan guztia koordinatzen duen organo bat ere badu, Kontseilu Errektorea. Kontseilu Errektore horretan daude ordezkatuta bost zirkuluak.

Egoitza-zerbitzu gisa, elkarlaneko bizitokietan izango garen % 75ek 65 urte edo gehiago izan beharko ditugu bizitzera joaten garenean. Une horretan, ez dugu gaur egungo gure etxebizitzekin espekulatuko, izan ere partzela emakida administratiboaren bidez esleitzeko lehia-lehiaketara aurkeztu ginenean, gure proiektuan konpromiso etiko hori adierazi baikenuen. Eta kooperatiban bazkide bat hil edo baja emanez gero, bizitokia ez dute oinordekoek jasokoharen, baizik eta kooperatibari itzuliko zaio erabilera-eskubidearen titular den heinean, itzarote-zerrendan dauden pertsoneri esleitzeko.

Inbertsio ekonomikoa, guztira, 4.660.000 €-koa izango da. Etxekidek 970.000 €-ko ekarpena egingo du funts propioen bidez, eta 3.750.000 €-ko finantziazio-eskaera, Fiarek finantziatuko duena, 30 urtera.

Elkarlaneko bizitokietako bat eskuratu nahi dugunok 30.691 €-ko kapital soziala jarri dugu, edozein arrazoia dela eta baja emanez gero berreskura litekeena. Era berean, hilero 558 €-ko oinarrizko kuota izango du bizitoki bakoitzak, eskatutako kredituaren sustapen eta interes kostuak ordaintzeko, eta 122 €-koa pertsonako, beste gastu batzuetarako, hala nola horniduretarako.

Kostu hori egoitza publiko edo kontzertatu bateko plaza bati legokiokeena baino txikiagoa da, kontuan izanik kostu horrek ez duela inoiz islatzen zerbitzuak benetan zer kostu izango lukeen. Eta pertsonentzako eta administrazioarentzako kostu hori txikiagoa izango da etorkizuneko zainketa-egoera batean, bertan biziko garen pertsonok arduratuko garelako horietaz eta, gainera, beharrezkoak izan daitezkeen zerbitzu komunitarioak izango ditugulako: auzo-unitatea, etxez etxeko arreta-zerbitzua; kooperatibisten beste sare pertsonal batzuk, kooperatibak kontratatutako langileak eta geure funtsekin ordaindutakoak...

Eta, azkenik, barne-paisaien atal hau eta dokumentua bera Etxekonak aipatuz amaituko ditugu, gure ahizpak zahartzearen eta aukera berriak irekitzearen bidean. Eskerrik asko laguntzeagatik, eta ibilita eta ibiltzeko dugun bideagatik. Baita eratzen hasiak diren beste ekimen batzuei ere. Haiei animoa eta gure esperientziaren laguntza.